

## Lagunen hitzak (2009-03-23)

Arratsaldeon guztioi. Arratsaldeon, Iñaki.

Gutako bat zure lekuan egongo bagina eta zu, Iñaki, hemen egongo bazina, gutxienez, bertso bat botako zenukeen; egiaztatu dugu gure "koadrillaren" ospakizunetan. Guk ez daukagu zure gaitasuna komunikatzeko, baina bai azpian dauden sentimenduak.

Horregatik, hitz batzuk botako ditugu.

Gure taldea eskubaloiaaren inguruan sortu zen eta, horri esker, beste gauza batzuk aurkitzeaz gain, ezagutu zintugun. Zure ezaugarrien artean hauexek aukeratu ditugu zure nortasuna adierazteko.

— Besteetan daukazu begirunea; horri ezker gure arteko adiskidetasuna mantendu egin da, nahiz eta alde nabarmenak egon.

— Asko gustatzen zaizu ikastea, liburuetatik eta, batez ere, pertsonengandik: euren esperientziatik, euren bizitzatik... berdin da pertsona horiek ekonomista edo artzaina izatea. Bi kasuetan zure arreta eta jakingura bizia bera da. Nahiz eta irakaslea izan, zure arlo guztietako bizitzan ikaslea izan zara.

— Zer esan zure herriari eta hizkuntzari buruz! Aipatu ere aski da zure maitasuna adierazteko.

— Azkenik, zure izadiaren maitasunak bultzatu gintuen hasieratik. Hor dauzkagu zuk prestatutako ibilaldiak eta izandako bizipenak. Betirako zure argazkiak izango ditugu zu gurekin egoteko.

Isabelekin bidaia jarraituko dugu. Eskerrik asko zure adiskidetasunagatik. AGUR, IÑAKI

## IÑAKI UGARTEBURU

(23-03-09)

Si uno de nosotros estuviera donde tú estás y tú, Iñaki, estuvieras aquí, por lo menos habrías echado un verso. Lo hemos comprobado en las celebraciones de la cuadrilla. Nosotros no tenemos tu capacidad de comunicar pero sí los sentimientos que subyacen a un hecho así. Por eso nos decidimos a hacer esto.

Nuestro grupo surgió alrededor del balonmano, actividad que entre otras muchas cosas, hizo que nos conociéramos.

De todos tus rasgos hemos elegido los siguientes para poner de relieve aspectos de tu personalidad.

— El respeto que tienes hacia el otro. Gracias a ello nuestra amistad ha perdurado a pesar de ser tan diferentes.

— Te gusta mucho aprender de los libros y de las personas: de sus experiencias, de su vida..., da igual si esas personas son economistas o son pastores. En ambos casos tu atención y gran deseo de absorber es la misma. Además de ser profesor de tus alumnos eres alumno de tus alumnos. Eso lo podemos aplicar a todas las áreas de tu vida.

— Qué decir de tu país, de tu lengua! Solo nombrarlos sirve para sentirlos como una parte de tí.

— Para terminar, tu amor por la naturaleza, que todos teníamos pero tú impulsaste. Las salidas, recorridos que has organizado y las vivencias que de ahí han surgido y que

están reflejadas en multitud de fotografías, serán recuerdos que nos van a servir para actualizar tu presencia.

Seguiremos el camino con Isabel. Gracias por tu amistad. AGUR, IÑAKI